

NAFARROAKO KRONIKA: ORVINA A-K AURRE EGINEN DIO OBERENA A-RI 3 PUNTUKO ABANTAILAZ.

2006.go urriaren 28an Nafarroako Taldekako Xake Txapelketako laugarren ihardunaldia jolastu zen.

MAILA NAGUSIA.

Orvina A eta Oberena A taldeak jo eta ke ari dira, nagusitu nahian. Orvinak hartu zuen hasieran abantaila eta oraingoz eutsi egiten dio. Datorren astean Orvina A-Oberena A neurketa jolastuko da. Hiru puntuko abantaila dauka Orvinak. Gero, 2 ihardunaldi besterik ez dira geratuko.

Orvina Ak bisita egin zion hirugarren sailkatuari (Mikel Gurea Fonclimari). Talde honek baja garrantzitsua pairatu du: David Arjolek taldea utzi egin omen du. Beste baja batzuk ere bazituen hain partida zaila jolasteko. Baina gazteen belaunaldi berriak kalitatea erakutsi zuen. Imanol Martínezek galdu zuen Unai Garbisu Nazioarteko Maisuaren aurka, baina borroka luzearen ondoren. Iker Irañetak erresistentzia handia egin zion Juan Jesús Mindegiari. Azken momentuan ito egoera behartzeko aukera izan zuen, baina pasatu zitzaion. Galdu egin zuen, beraz. Aritz Manchak ustekabe handia eman zuen: Iñaki Rebolé gainditu zuen. Bestaldetik, lehia estua aurreikus zitekeen Ángel Vilchez eta Sergio Navarreteren artean. Halaxe izan zen eta partida berdinketan amaitu zen. **Azkenean, Orvina Ak 1'5-6'5 irabazi zion Mikel Gurea Fonclimari.**

Oberena Ak Paz de Ziganda Ikastola A jaso zuen. Borroka batez ere lehenengo mahaietan espero zen. Jesús De la Villak txuriekin Eduardo Burguete gainditu zuen. Beltzekin, Miguel Navarrok Iker Ojer menperatu zuen. Hirugarren mahaian ustekabea iritsi zen: Adrián Leranozek beltzekin Mikel Huergari irabazi zion. Hori gutxi balitz, Erik Mirandak ere berdinketa lortu zuen Daniel Zamarbideren aurrean. **Azkenean, Oberena Ak 6'5-1'5 gainditu zuen Paz de Ziganda Ikastola.** Orvinarekiko alde ezin jan, beraz.

Tuteran, Orvina Bk 3'5-4'5 irabazi zion Santa Ana Ari. Puntuak gehiago behar zituen eta garaipena eskuratu zuen. Hala ere, Santa Anak mantentzen du laugarren postua. Neurketa honetan, azpimarragarria da Patxi Sesmak Orvinako Gonzalo Mombielari irabazi ziola.

Alekhinek eta Nuevo Casinok lehia dramatikoa zuten Lizarran. Bertako taldeak 5-3 irabazi zuen. Emaiza honekin, Nuevo Casinok hanka bat jarri du Lehenengo Mailan. Neurketarik interesgarrienak hauexek izan ziren: Gorka Argandoña (Alekhine) – Pedro Viñal (Nuevo Casino), 0'5-0'5; José Manuel Redín (Nuevo Casino) – Iñigo Ganuza (Alekhine), 0'5-0'5; Javier Ayucar (Alekhine) – Rafael Ruiz Escobar (Nuevo Casino), 1-0; Santiago Alfonso Abrego (Nuevo Casino) – Ibai Lakunza (Alekhine), 0-1.

Sailkapena horrela dago:

- 1) Orvina A – 29 puntu.
- 2) Oberena A – 26 puntu.
- 3) Mikel Gurea Fonclima – 16'5 puntu.
- 4) Santa Ana A – 14'5 puntu.
- 5) Alekhine – 13 puntu.
- 6) Orvina B – 11 puntu.
- 7) Paz de Ziganda Ikastola A – 10 puntu.
- 8) Nuevo Casino – 7'5 puntu.

LEHENENGO MAILA.

Oberena Bk Etxarri Aranatzen irabazi zuen, bertako taldearen aurka (Zaldi Beltzaren aurka, alegia): 3-5. Pauso sendoa darama Maila Nagusira bidean, baina paseorik eman gabe. José Miguel Ugaldek, gainera, burua makurtu behar izan zuen Iñaki Sasiainen aurrean, lehenengo mahaian. Beste emaitza batzuk, hauexek: Jesús Luis Aguinaga (Oberena B) – Iraitz Mauleon (Zaldi Beltza), 1-0; Mikel Markotegi (Zaldi Beltza) – Gregorio Sola (Oberena B), 0-1.

Oberena Ck bigarren postua mantendu du, San Juan A taldeari 3'5-4'5 irabazi ondoren. Miguel Argayak irabazi zion María Goñiri eta José Zaratieguik Aaron Mateori, baina gainontzeko tableroetan Oberenakoek irabazi edo berdindu zuten.

Sancho el Fuerte-Tiebas izan zen ihardunaldia hobekien aprobetxatu zuena: 2'5-5'5 irabazi zion Santa Ana B taldeari. Dena den, oztopo batzuk aurkitu zituzten: Juan de Dios Casado (Sancho el Fuerte-Tiebas) – José Ángel Carcavilla (Santa Ana B), 0'5-0'5; Mariano Sol (Santa Ana B) – Francisco Sesma (Sancho el Fuerte-Tiebas), 0'5-0'5.

Gazte Berriak aprobetxatu zuen Runari egindako bisita: 3-5 irabazi zion. Horrela, bigarren posturako borrokan sartzeko da, Runa jaisteko arrisku handian geratzen den bitartean. Hauexek izan ziren emaitza batzuk: Iñaki Barbería (Runa) – Alfonso Cemborain (Gazte Berriak), 0'5-0'5; Iñaki Esparza (Gazte Berriak) – Félix Juanco (Runa), 1-0; Ramón Estevez (Runa) – José María Sorozabal (Gazte Berriak), 0'5-0'5.

Sailkapena horrela dago:

- 1) Oberena B – 20'5 puntu.
- 2) Oberena C – 17'5 puntu.
- 3) Sancho el Fuerte – Tiebas – 17 puntu.
- 4) Gazte Berriak – 16'5 puntu.
- 5) San Juan A – 16 puntu.
- 6) Zaldi Beltza Xake Taldea – 14 puntu.
- 7) Santa Ana B – 13'5 puntu.
- 8) Runa – 12'5 puntu.

Oberena Bk iguera lortuko duela dirudi. Igotzeko sustapena jolasteko eskubidea ematen duen bigarren posturako lau talde daude borrokan: Oberena C, Sancho el Fuerte-Tiebas, Gazte Berriak eta San Juan A. Ez jaisteko lehian, hiru talde daude murgilduta: Zaldi Beltza, Santa Ana B eta Runa.

BIGARREN MAILA.

Estu-estu jarri da sailkapena, ihardunaldi honetako emaitzen ondorioz.

Mikel Gurea Iruña-Motor eta Arrano Elkartea A berdindu egin zuten Burlatan: 2-2. Arrano mantentzen da buruan, puntu bateko abantailaz, baina beste talde batzuk asko hurbildu zaizkio.

Oberena Dk 3-1 gairitu zuen San Juan B eta liderrarengandik puntu batera geratu da.

Larre Bk 3-1 irabazi zion Berriozarri eta burutik bi puntura jarri da, José Antonio Apesteguiak Javier Sevillaren aurka galdu arren.

Horrela dago sailkapena:

- 1) Arrano Elkartea A – 12 puntu.**
- 2) Oberena D – 11 puntu.
- 3) Mikel Gurea Iruña-Motor – 11 puntu.
- 4) Larre B – 10 puntu.
- 5) Alaitz Xake Taldea – 10 puntu.
- 6) San Juan B – 8'5 puntu.
- 7) Oberena E – 8 puntu.
- 8) Berriozar – 8 puntu.
- 9) Larre A – 7'5 puntu.
- 10) Orvina C – 7'5 puntu.
- 11) Gazte Berriak B – 7 puntu.
- 12) Arrano Elkartea B – 7 puntu.
- 13) Arrano Elkartea C – 6'5 puntu.
- 14) Mikel Gurea Sub12 – 5'5 puntu.
- 15) Mikel Gurea Burlada – 5 puntu.
- 16) Zizur-Ardoy – 4 puntu.
- 17) Paz de Ziganda Ikastola B – 2'5 puntu.

Datorren astean lehia erabakigarriak izanen dira: Arrano Elkartea A – Larre B eta Mikel Gurea Iruña-Motor – Oberena D.

2006-10-28.

Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.